

AZENTUA ETA ETIMOLOGIA¹

José Ignacio Hualde

1. Bizkai-Gipuzkoetako anitz lekutan, hala nola Nafarroako Bortzirietan, azentua bereizgarria da. Hitz gehienak arau orokor baten bidez azentuatzen diren bitartean, beste hitz batzuek azentuera berezia edo markatua erakusten dute. Eskualde honetan zehar (=Txillardegí 1985 "mendebaldeko azentu saila") aurkitzen diren azentu arauak nahikoa desberdinak badira ere, hitz markatueta bat-etortze harrigarria aurkitzen dugu, Mitxelenak (1977: 391) ikusi zuen bezala. Adibide batzuk emateko, *beste*, *leku*, *le(e)ngusu*, *belarri* edo *basu* 'edalontzia' hitz markatuak dira azentu bereizgarria duten hizkera gehienetan mendebalde-erdialdeko eskualde honetan (ikus Gaminde & Hualde 1995).

Singularrean eta pluralean azentuera desberdinak dituzten hizkeretan, bereizkuntza hau galtzen da hitz markatuekin. Adibidez, Gipuzkoako zenbait lekutan *etxiak* ergatibo singularra eta *étxiak* absolutibo-ergatibo plurala edo *gizónai* datibo singularra eta *gizonai* plurala azentuaren bidez bereizten badira ere, singularraren eta pluralaren arteko bereizkuntza hori ez da egiten /bésté/ hitzarekin: *béstiak* ergatibo singularra zein absolutibo/ergatibo plurala izan daiteke eta *béstiái* datibo singularra zein plurala. Era berean, Gernikaldean *etziék* eta *etziék* 'erg sg' vs. 'abs-erg pl', *gixonari* eta *gixónari* 'dat sg' vs. 'dat pl', etab., bereizten dira, baina *béstiék* 'erg sg = abs-erg pl', *béstiéri* 'dat sg = dat pl' dugu, azentuera markatuarekin.

Hitz markatuak zeintzuk diren galdetzen badugu, nabarmena da haueta-

¹ Eskerrik asko Joseba Lakarrari gai hauetaz izandako eztabaidagatik eta Gorka Elordietari bere oharrengatik.

riko asko bi talde nagusitan sartzen direla, Mitxelenak (1972) ere esan zigunez: (a) maileguak eta (b) hitz elkartuak eta eratorriak.

Lehen taldea dela-ta, hitz markatuen artean mailegu asko baditugu ere (zaharrak zein berriak), mailegu guztiak ez dira markatuak. Hitz mailegatu asko azentuera orokorrari egokitu zaizkio. Hain zuzen, maileguak azentuatzeko oso egokitzapen-arau zehatzak aurkitu ohi ditugu tokian tokiko hizkeretan. Kasu aipagarri bezala, Bizkaiko iparraldeko hizkeretan *-ero* atzizkidun maileguak bi modu desberdinetan egokitzen dira, esannahia 'egilea' edo 'ontzia, lekua' den. Beraz, *frutérue* 'fruta-ontzia' markatua eta *fruterué* 'frutasaltzailea' markatugabea (eta azentugabea, cf. *fruterue dá*)² desberditzen dira azentueraren bidez, nahiz eta erdaraz bi hitz hauek guztiz homonimoak izan (hurrengo hizkera hauetan behintzat egiten da azentuzko bereizkuntza hau: Gatika, Gernika, Lekeitio, Ondarroa, Markina, Mallabia). Edozein kasutan, azentuera markatua daukaten hitz batzuk oso mailegu zaharrak dira. Adibidez, markatuen artean hurrengoak aurkitu ohi dira mendebaldeko hizkeretan: *denpora* (< lat. *tempora*), *domeka* (< lat. *dominica*), *kipula* (< lat. *caepulla*), *puxika* (< lat. *uessica*), *alkondara* (< gazt. zah. < arab. *al-qandûra*) eta beste asko. Bigarren taldean (hitz elkatuak eta eratorriak) hurrengoak izan ohi ditugu adibidez: *astelehen*, *saguzahar*, *galbabe* (*gari* + *bahe*, < errom. **van*, Mitxelenaren ustez), *lehengusu* (*lehen* + errom. **cusinu* < lat. *co(n)sobrinus*), etabar.

Hau guztiau kontuan hartuz, hurrengo hipotesia plazaratu dezakegu: mendebaldeko-erdialdeko azentu sistemetan azentuera markatua daukaten hitz guztiak maileguak edo konposatu/eratorriak dira (edo izan dira). Argi dago hipotesi honek laguntza garrantzitsua eman diezagukeela hitz jakin baten etimologia erabakitzeko orduan. Ikusten badugu etimologia ezezaguneko hitz batek azentuera markatua duela, horrek zerbait esaten digu bere etimologiaz; hots, mailegua edo morfemaaniztuna dela. Adibide batzuk emateko, *leku* hitzaren azentuera markatuak etimologia berezia duela erakusten digu, bere sorburua *lueco* erromantzean ikusten duen etimologia baieztatuz. Era berean, *aizkora* hitza *asceola*-tik datorrela proposatu da. Azentuzko gertakariak bat datoz hipotesi honekin, Bizkaiko leku askotan hitz honek azentuera markatua baitu.

Nonbait idatzi dudanez *bariaku* hitzaren azentuera bat dator Mitxelenak proposatzen duen etimologiarekin: **abari-bako-egun* (= *dies-sine-cena*). Mitxelenak ez zuen azentuera kontuan hartu etimologia hau proposatzeko,

² Gernikaldeko azentueran, aipamen forman azentua azken silaban daukaten hitz guztiak azentugabeak dira testuinguru gehinenetan.

baina azentuerak bere proposamenaren aldeko ebidentzia ematen digu. Beste adibide bat emateko, *bákarrik* hitzak duen azentuera markatua *bat-garr-ik* egituraren bidez azaltzen da.

Orain arte euskal etimologia lanetan azentua alde batera utzi da gehienguan. Egia da batzutan zubereraren azentu gertakariak aipatzen direla. Baina zubereraren azentuaren "memoria historikoa" askoz laburragoa da mendebaldeko euskararena baino. Azentuera bereizgarria mendebaldean baino askoz berriagoa da hemen. Zubereraz hitz batek azentuera markatua (oxitonoa) badauka, arrazoia izan daiteke bukaeran bokal bat galdu dela, **gizoná(g)ek* > *gizonék*, eta **alhabáa* > *alhabá* kasu aipatuetan bezala (edo-ta *mendían* > *mendín* berriagoan). Modu honetan hitz bat oxitonoa bada zubereraz, kontrazio bat pairatu duela susmatu dezakegu. Baina honek mailegu zaharrak edo konposatu zahar fosilduak aurkitzeko ez digu laguntzen. Mendebaldeko azentua, aldiz, lagungarriagoa izan daiteke etimologia lanetan. Bada garaia azentu gertakariak kontuan hartzeko proposamen etimologikoen egiantza ebaluatzerakoan. Hau da, esaldi batean esanda, artikuluxka llabur honetan esan nahi dudana.

2. Gure hipotesiaren balio heuristikoa ukaezina da, nire ustez. Ikusten badugu, esate baterako, *amu* hitzak azentuera markatua duela Ondarroan, Lekeitian, Markinan, etab., datu honek etimologiaren berri ematen digu. Eman dezagun ez dakigula ezer hitz honen etimologiaz (edo ez garelako gogoratzen). Gure hipotesiaren arabera, azentu markatua duten hitzak elkartu/eratorriak edo mailegatuak dira. Egituragatik hitz honek ez dirudi polimorfemikoa. Orduan, pentsatu behar dugu mailegu bat dela. Eta horrela da. Gure erdal hiztegiatara bagoaz orain, ikusiko dugu latinezko ordaina *hamus* dela eta gaztelaniazko hiztegian ere *hamo* hitza aurkitzen dugu esannahi horrekin, nahiz eta oso erabilia ez izan.

Eguzki hitzaren etimologia azaltzeko proposamen desberdinak egin dira (ikus Agud & Tovar-en 1988, hiztegi etimologikoa). Schuchardt-ek *egun* hitzaren konposatu bat dela proposatu zuen (*egu-zki*). Azentuera proposamen honen alde dago, hitz honek azentu markatua erakusten baitu mendebaldeko hizkera askotan.

Erreka hitzaren etimologiaz, Agud & Tovarrek bi iritzi nagusi ekartzen dizkigu: (a) mailegu bat dela, jatorria erromantzezko *regata* edo bere latinezko sorburua delarik, eta (b) erromatarren aurreko substratuzko hitza dela euskaraz eta erromantzez. Bizkaieraz aurkitzen dugun azentuera markatua garbi uzten du lehen etimologia zuzena dela: mailegu bat da.

Beste hitza azentuera markatuarekin agertzen zaigu Bizkaitik Nafarroako Bortzrietara, azentu bereizgarria duten hizkera guztietan. Datu honek, *beste* jatorriz hitz polimorfemikoa dela pentsatzera garamatza.

Jakina denez, hitz honek *ber(t)ze* aldaera dauka Lapurdin eta Nafarroan. Bestaldetik, *beste* aldaera agertzen zaigu berriro Zuberoan eta Erronkarin. Hizkuntzalaritza historikoan ezaguna den “mutur-hizkeren” irizpideari jarraituz, *beste* formarik zaharrentzat hartu beharko genuke. Hala ere, kasu honetan garbi dago Lapurdi-Nafarroetako aldakia zaharragoa dela, eta berrikuntza gertatu dela bi muturretan. Hain zuzen *bertze* > *beste* aldakuntzak paralelo garbiak ditu: *mercede* > *mesede*, *sagar-tza* > *sagasta* (Azkue, *Morfología*). Adibide hauetan aldakuntzaren norabidea argi dago.

Joseba Lakarrak proposatzen duenez *bertze* hitzean, erroa *ber-* izango litzateke; hau da *bera* eta *berdin* hitzetan dugun erroa. Bigarren osagaia, Lakarraren ustez, agian *eze* ukapena izango litzateke; beraz, *bertze* < **bér-eze* izango genuke.

Iparmendebaldeko bizkaieraz, *yústuri* ‘ostots, trumoi; tximist’ hitza erabiltzen da, azentua lehendabiziko silaba duena. Lakarrak duela guti argitaratu duen *Refranes y Sentencias* liburu zahararen edizio berrian, hitz hau konposatu zahar bat dela proposatzen du: **inotsi* ‘esan’ + *euri*. Knörr-ek (1998:9) esaten digunez, Bonapartek *dusturi* aldaera aurkitu zuen Arabako euskaraz, baina hasierako hortzaria zaharra zein bigarrenkaria izan daiteke (cf. *deus* < errom. *gens*). Azkuek *iñusturi* (G, B-Añibarro) aldaera aipatzen du eta baita *ihortziri* eta *igorziri* ere (azken hau Leizarragarengan). Axularren hiztegian *igortziri* aurkitzen dugu. Lehen esan dugunaren arabera hitz honetan *-rtz-* taldea *-st-* baino zaharragoa dela onartu behar dugu; Lakarraren etimologia zalantzan jartzen duena. Baina etimologia osoa onartzen ez badugu ere, azentuak erakusten du konposatu zaharra dela, eta agian bigarren osagaian *euri* hitza ikustea zuzena da.

Zenbait kasutan, azentu markatua kontrazio baten ondorioa da, antza denez: *bélarri* (edo *belárrri*, baina azentuera markatuarekin) < *belaarri*, *égia* < *egüa* (ikus *Orotariko Euskal Hiztegia*). Itxura guztien arabera, bokal geminatu edo bikoitzak Mitxelenaren aitzineuskara baino berriagoak dira. Lehendabiziko adibidearen kasuan, konposatu edo eratorri bat izango genuke: **bela-arri*, agian galdu den bokalarteko kontsonante batekin: **bela-garri*. *-l-* aren ordeztze beste kontsonante bat daukaten aldaerek arazo desberdin bat sortzen dute. Agian **beha-garri* proposatu dezakegu, eta *behatu* aditzarekin lotu.

3. Mendebaldeko eta erdialdeko azentubideen artean, zaharrena Gernikaldean (edo Getxotik Gernikaraino) erabiltzen dena da, beste nonbait

frogatzen saiatu naizenez. Azentu sistema honetan atzizki batzuek azentuera markatua eragiten dute. Deklinabidean, hurrengo formek daukate azentu markatua: pluralaren forma guztiak (adib. *gizónari* ‘gizonei’ azentuduna vs. *gizonari* ‘gizonari’, azentugabea), sozietiboa (*gizonágaz*), eta ablatiboa (*basó-tik*, cf. *basorá*). Hizkera batzuetan benefaktiboa ere markatua da.

Azentua atzizki markatuaren aurreko silaban agertzen da (azentuerarik kontserbatzaileenean). Gertakari hau klitikoekin ere aurkitzen dugunez gero (cf. *gizoná be(re)*, *gizón barik* ikus Hualde, Elodieta eta Elordieta 1994:59-61), hipotesi bezala, proposatu dezakegu gaurrengungo atzizki markatuen eta markatugabeen arteko bereizkuntza garai bateko atzizkien eta klitikoen arteko kontraste morfologiko bati dagokiola. Talde klitikoetan azentu berezia sartzen zen muga morfologikoa markatzeko (hitz elkartuetan bezala), eta orduko klitikoak gaurko atzizki markatuak dira. Klitikoen eta atzizki markatuen arteko lotura diakronikoa argi eta garbi agertzen zaigu sozietibo edo komitatiboaren kasuan. Bai singularrean eta bai pluralean ere, atzizki hau forma mugatuari eransten zaio, eta ez erroari. Bi formek azentu markatua dute, baina silaba desberdinetan: *lagun-a-gaz* > *lagunágaz*, *lagun-ak-gaz* > *lagúnakaz*. Nolabait, sozietiboarekin klitiko > atzizki bilakaera diakronikoa ez da oraindik burutu.

Mugatzaile pluralaren kasuan, badago ebidentzia garbia singularra baino beranduago lotu zitzaiola ezkerraldeko hitzari. Mitxelenak (1987[1981]:48-49) ohartarazten digunez, mendebaldean *a + a > ea* disimilazioa ez da betetzen pluralean (adib. *domekaa* > *domekea*, baina pluralean *domeka(a)k* eta inon ere ez ***domekeak*). Ondorio gisa hauxe atera dezakegu: “el plural [...] se formó en vasco en época tardía, cuando la ley que convertía a -a + -a en -ea, etc., ya no era operativa”. Azentuzko gertakariak bat datoz Mitxelenaren hipotesi honekin.

Goiko aipuan parentesi artean dagoen lekutik hurrengo hitzak kendu ditut: “como el locativo sing.”. Hau da, Mitxelenarentzat lokatiboa ere berandu sartu zen deklinabidean, *domekan*, *horman*, etab. baitugu, eta ez ***domekean*, ***hormean*. Baina puntu honetan Mitxelenaren hipotesia ez dago ados atzizki markatu eta markatugabeen arteko bereizkuntzarekin. Lokatiboa ez da markatua: *basoán*, *hormán* forma azentugabeak ditugu Gernikaldeko azentueran, eta ez ***basoán*, ***hórman*.

Lokatiborako Mitxelenaren hipotesia ez badugu onartzen, nola azaltzen dugu, pluralean bezala, *aa > ea* disimilazioa ez dela betetzen kasu honetan? Erantzuna ez da zaila. Hizkuntzalari asko konturatu dira garai batean atzizki hau kontsonantez hasi zela (ikus Trask 1997: 202). Honela bakarrik esplikatu da kontsonantez bukatutako oinarriekin aurkitzen dugun *-e-* epenteti-

koa, adib. *lurr-ean* eta ez ***lurr-an* (baina *baso-an*, etab.). Alomorfoen banaketak **-Can* protoforma eskatzen du. Beraz, **baso-Can* izango genuke, alde batetik, eta **lurr-e-Can*, bestaldetik, bokal epentetiko batekin kontsonante taldea apurtzeko (deklinabidearen antzeko kasu guztietan bezala, cf. *lurr-e-ko*). Atzizkiaren hasieran zegoen kontsonantea zein zen ez zaigu axola orain. Agian atzizkia **-gan* zen (ikus Jacobsen 1977, de Rijk 1981 eta baita Trask 1997 ere), baina berdin zaigu beste kontsonante bat izatea. Garrantzitsua dena da kontsonante horrek disimilazioa eragotzi zuela: **domeka-Can* (edo **domekagan*, nahi bada) > *domekan*. Ez dugu onartu behar morfema hau berandu bihurtu zela atzizki. Nahikoa da onartzea kontsonantea ahoskatzen zela disimilazioa sortu zenean.

AIPAMENAK

AGUD, Manuel & Antonio TOVAR (1988), *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca (ASJU 22)*

AZKUE, Resurrección María de. (1905), *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao.

— (1923-25), *Morfología Vasca*. Berrarg., 1969, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

GAMINDE, Iñaki & J. I. HUALDE (1995), “Euskal azentueren atlaserako: zenbait isoglosa”. *ASJU* 29:175-198.

HUALDE, José Ignacio; ELORDIETA, Gorka & ELORDIETA, Arantzazu. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo & Donostia: EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia (*ASJU*-ren gehigarriak, 34).

JACOBSEN, William (1977), “The Basque locative suffix”. In Douglass et al., arg., *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*, 163-168. Reno: Desert Research Institute Publications on the Social Sciences, 13.

KNÖRR, Henrike (1998), *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Alava / Arabako euskarari buruz jakin behar dena*. Gasteiz: Caja Vital Kutxa.

LAKARRA, Joseba (1996), *Refranes y sentencias (1596)*. *Ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

MITXELENA, Koldo (1972), “A note on Old Labourdin accentuation”. *ASJU* 6: 110-120.

- (1977), *Fonética histórica vasca*, 2. arg. Donostia: Gipuzkoako Aldundia (ASJU-ren gehigarriak).
- (1981), “Lengua común y dialectos vascos”. *ASJU* 15: 291-313. Berrarg., 1987, *Palabras y textos*, 35-55. Leioa: EHU.
- (arg. 1987), *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbao: Euskaltzaindia.

RIJK, Rudolf P. G. de (1981), “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”. In *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

TRASK, Robert Larry (1997), *The history of Basque*. London: Routledge.

TXILLARDEGI (1984), *Euskal azentuak*. Donostia: Elkar.

VILLASANTE, Luis (1973), *Axularren hiztegia*. Oñati: Jakin.